

OHIZKO OSOKO BILKURA
2015.09.29

Tolosako Udaletxean, 2015eko irailaren 29an, iluntzeko 8etan, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohizko Osoko bilkura egiteko. Mahaiburu, Olatz Peon Ormazabal, Korporazioko alkate-lehendakaria izan da eta ondorengo gaiak aztertzeko udalbazkide hauek agertu dira:

En la Casa Consistorial de Tolosa, a las 20:00 horas del día 29 de septiembre de 2015, se reúne el Ayuntamiento Pleno en sesión ordinaria y primera convocatoria, bajo la presidencia de la Alcaldesa, Olatz Peon Ormazabal, y la asistencia de los miembros que se expresan, a fin de tratar sobre los puntos del orden del día que se relacionan:

Alkate-lehendakaria:
Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

Jokin Azkue Arrastoa
Nerea Letamendia Beloso
Patxi Amantegui Zubiria
Nuria Carbonell Miranda
Iñigo Alonso Sarasibar
Joseba Koldo Ormazabal Lopez
Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga
Begoña Tolosa Mendia

Ibai Iriarte San Vicente
Onintza Lasa Arteaga
Iñaki Irazabalbeitia Fernandez
Igor Ezenarro Balda
Maria Lasa Arruabarrena
Pedro Manuel Etxabe Zabala
Jose Ignacio Asensio Bazterra

Ez bertaratutakoak:
Lore Agirre Zipitria

Behin behineko Idazkaria:
Karmele Contreras Goikoetxea

Behin behneko kontuhartzailea:
Paulino Alonso Eraso

Eguneko gaia zerrenda

Orden del día

1. Ondorengo akta onartzea:
2015eko uztailaren 28ko Ohizko Osoko bilkurakoa.

1. Aprobación de la siguiente acta:
Sesión ordinaria del 28 de julio de 2015.

2015.09.29

- | | |
|--|--|
| <p>2. Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:</p> <p>2015eko uztailaren 1etik abuztuaren 31ra (2015/1.081-2015/1.379).</p> <p>3. 2015eko lanpostu zerrendaren aldaketa onartzea: Kultura, Gaztedia eta Festetako departamentu-buru lanpostuaren sorrera.</p> <p>4. 2015eko lanpostu zerrendaren aldaketa onartzea:
Gizarte zerbitzuburu lanpostuaren perfil aldaketa.</p> <p>5. 3/2015 Kreditu aldaketa</p> <p>6. Kreditu aldaketa eta egonkortasuna. Komunikazioa plenoari.</p> <p>7. Emakumeen Mundu Martxaren inguruko adierazpen instituzionala.</p> <p>8.-Errefuxiatuen Krisi Humanitarioaren inguruan adierazpen instituzionala</p> <p>9. Errefuxiatuen krisi humanitarioaren inguruko mozioa (Amnesty-k aurkeztutakoa)</p> <p>10.Tolosako Podemos-Ahal Dugu taldeak aurkeztutako mozioa.</p> <p>11.Tolosako EHBILDU udal taldeak Askapena taldea internazionalistaren alde aurkeztu duen mozioa.</p> <p>12.AVITEk (Talidomidaren biktimen elkarte) aurkeztutako mozioa.</p> <p>13. Galderak eta eskaerak.</p> | <p>2. Dar cuenta de los decretos emitidos por la alcaldía:</p> <p>Del 1 de julio al 31 de agosto de 2015 (2015/1.081-2015/1.379).</p> <p>3. Aprobación de la Modificación de la relación de puestos de trabajo 2015: Creación de puesto de jefe de área de Cultura, Juventud y Fiestas.</p> <p>4. Aprobación de la Modificación de la relación de puestos de trabajo 2015: Modificación del perfil del puesto del Jefe de Servicios Sociales.</p> <p>5. Modificación de créditos 3/2015.</p> <p>6. Comunicación al Pleno de la modificación de créditos y estabilidad presupuestaria.</p> <p>7. Declaración Institucional con motivo de la Marcha Mundial de las Mujeres.</p> <p>8. Declaración institucional sobre la crisis humanitaria de personas refugiadas</p> <p>9. Moción presentada por Amnesty sobre la crisis humanitaria de personas refugiadas</p> <p>10 Moción presentada por el Círculo Municipal de Podemos-Ahal Dugu de Tolosa</p> <p>11.Moción presentada por EHBILDU en apoyo al grupo internazionalista Askapena.</p> <p>12.Moción presentada por AVITE (Asociación de Víctimas de Talidomida)</p> <p>13.Ruegos y preguntas.</p> |
|--|--|

Gai zerrendatik kanpo, urgente bezala, ondorengo gai hau:

Elektrizitate zerbitzu komertzialen prestazioa.

Prestación de servicios comerciales de electricidad.

Segidan, lehendakariak batzarrari hasiera eman dio ondorengo gaiak aztertzeko:

A continuación, se da inicio a la sesión por la presidencia, para analizar los siguientes puntos:

2015.09.29

- | | |
|---|--|
| <p>1. <u>Ondorengo akta onartzea:</u>
<u>2015eko uztailaren 28ko Ohizko Osoko bilkurakoa.</u></p> | <p>1. <u>Aprobación de la siguiente acta:</u>
<u>Sesión ordinaria del 28 de julio de 2015.</u></p> |
|---|--|

Izenburuan aipatutako akta, aho batez, **onartu** da.

- | | |
|--|---|
| <p>2. <u>Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:</u>

<u>2015eko uztailaren 1etik abuztuaren 31ra (2015/1.081-2015/1.379).</u></p> | <p>3. <u>Dar cuenta de los decretos emitidos por la alcaldía:</u>

<u>Del 1 de julio al 31 de agosto de 2015 (2015/1.081-2015/1.379).</u></p> |
|--|---|

Alkatetzak 2015eko uztailaren 1etik abuztuaren 31ra bitartean (2015/1.081-2015/1.379) egin dituen dekretuen berri eman zaie bertaraturakoei.

Denak jakinaren gainean geratu dira.

- | | |
|---|---|
| <p>3. <u>2015eko lanpostu zerrendaren aldaketa onartzea: Kultura, Festak eta Gaztediko departamentu-buru lanpostuaren sorrera.</u></p> | <p>3. <u>Aprobación de la Modificación de la relación de puestos de trabajo 2015: Creación de puesto de jefe de área de Cultura, Fiestas y Juventud.</u></p> |
|---|---|

Partehartzeak:

... Igor Ezenarro Balda (EHBILDU):

Zerbitziburua lehengoa jartzearen aurka ez gaude, ez hori ezta edozein lankide ere. Ez duguna ikusten da hasieratik batzorde hau. Kultura, festak eta gaztedia denak elkartuta batzorde berdinean jartzea ez dugu ikusten. Azkenean, pisu handiko bi gauza sartu dituzue: Kultura eta Gaztedia, eta lehengo batzarrean ikusi zen nola izango zen eta hau gaztediaren aurka dihoa. Herri honetan kulturak duen pisua ikusita batzorde horretan gehien landuko diren gaiak kulturakoak izango dira. Orduan, gaztedia gelditzen da hor nahiko gaizki, Gainera, gaztediko gaiak nahiko zabalak dira: 0 urtetik 30 arte. Orduan, zoritxarrez, kezka gehiago daude gazteen inguruan eta orduan iruditzen zaigu batzorde horretan gaztedia lehen bezalaxe egin beharko litzakeela: atera eta batzorde propioa osatu. Aurka bozkatuko ez ...ez, noski, zerbitzu burua zein den edo ez, baizik eta batzordearekin ez gaudelako ados. Uste dut, berriz ere, replanteatu egin beharko zenukeela beste modu batera.

2015.09.29

... Alkatea: *“Argibide bat:gaur puntu honetan onartzen duguna zerbitzuburuaren figura da. Ze batzordearen antolaketaz hitz egin genuen eta argitu genuen aurreko plenoan. Hala eta guztiz ere, berriz komentatzen dizuet, gure ustetan antolaketa hau ona dela, aurreko legealdiaren zenbait esperientzien arabera hainbat gai, bai kulturatik pasatzen ziren, bai gazteditik eta alferrikako bilerak kentzeaz aparte, gaztedia beti pentsatzen dugu zeharkatasunez landutako gai bat izan dela eta hala izanikan ere, bere lekua izan behar duenez batzorde batean, egokia ikusten genuen batzorde honetan. Hori batzordearen antolaketari dagokionez. Eta beste aldetik, puntu honi dagokiona, zerbitzuburuaren figuraren inguruan, hori oraindik erabaki gabeko gauza bat izan zen, koordinazio figura desagertu zenetik, amortizatu zenetik, erabaki hori pendiente zegoela uste dugu eta horregatik iruditzen zaigu egokia gaurko plenoan hori onartzea.”*

... Igor Ezenarro: *“Pixka bat argitzearren:Gaztediarena, bai gaur, bai batzordean, eta berriz ere nik uste dut hurrengo batzordeetan ere, honekin segituko dugula. Zuek ikusten duzue Gaztedia eman behar dela kultura eta festetan, baina uste dut gaztediari daukan inportantzia eman behar zaiola eta uste dut kultura eta festetatarako badaudela gaiak. Azkenean, berriz esaten dut: 0 tik hasi eta 30urte bitarteko gazteetaz hitz egiten ari gara.Mila gauza: lan baldintzak, etxebizitza, lana. Horregatik, guk segituko dugu gaztediko batzorde propioa eskatzen.”*

... Alkatea: *“Zure argumentu horren baitan: horregatik aipatzen dugu guk Gaztedia zeharkatasunez landu egin beharreko gai bat dela, batak ez du bestea kentzen.”*

Jarraian, Idazkariak diktamena azaldu du:

“2008 urte arte kultura zerbitzuburuaren lanpostua funtzionario batek, udal langileak, bete zuen. Momentu horretan, urtebeterako lan utzialdia eskatu eta udalak bere ordezkoa bilatu zuen aldi horretarako.

2009 urtean, pertsonal ebentual gisa, kultura koordinatzaile bat izendatua izan zen, 2011ko irailaren 30 arte egon zena, eta ordu arte koordinazio funtzioak betetzen zituen langileak kultura programazioko teknikari izatera pasa zen.

2011ko urritik aurrera, koordinazio lanpostua hutsik geratu zen lehenik. Hau amortizatu egin zen eta ondoren, gaur egun arte, kultur arloa buruzagitza teknikorik gabe egon da.

Horregatik, momentu honetan, Alkatetzak beharrezkoa ikusi du Kultura, Festa eta Gaztediko zerbitzuburuaren figura eta lanpostua berreskuratzea, horretarako dagozkion pausoak emanez.

Honela, aldaketa hau egin ahal izateko, hainbat aspektu ezberdin aldatu behar dira, besteen artean:

a) Organigramaren egokitzapena: kasu honetan proposatzen den aldaketa da zerbitzuburu bat izendatzea, Kultura, Festa eta Gaztediren ardura izango duena.

b) Funtzioen berreskuratzea: kasu honetan, aipatutako funtzionarioak zerbitzuburu bezala

2015.09.29

zituen funtzioak berreskuratzea. Funtzioen katalogoa espedientean azaltzen da.

Halaber, Kultura, Festak eta Gaztediko buruaren” lanpostua sortzen da eta “Kultura programazioko teknikari” lanpostua amortizatzen da. Aldaketa hau Lanpostu zerrendaren aldaketan espedientean gelditzen da.

Ordainsariei dagokionez, lanpostu berriak ez du igoerarik izango, bere egunean zerbitziburutik teknikari izatera pasa zenean, soldata bere horretan mantendu baitzen, osakin iragankor batekin.

c) Lanpostuaren ezaugarriak:

“Kultura, Festak eta Gaztediko zerbitziburuen” lanpostuaren sorrerak honako ezaugarriak ditu:

Izena: Kultura, Festak eta Gaztediko zerbitziburua

Klasifikazio taldea: A1/A2

Lanpostu mota: singularizatua

Dotazioa: 1

Dedikazioa erregimena: lanaldi osoa

Hornitzeko era: izendapen librea

Eskala: Administrazio orokorra/berezia

Hizkuntz eskakizuna: 4

Derrigortasun data: Plenoak ezarritakoa bere sorpenean

Destino osagarria: 25

Berariazko osagarria: 827 puntu “

Guzti honengatik, Giza Baliabide eta Udal Antolakuntza batzordeak irailaren 23an jaulkitako diktamena aztertu ondoren, Udalbatzak, EAJ-PNV (9) eta PSE-EE (1) alderdien aldeko botoekin eta EHBILDU (6) alderdiaren aurkako botoekin, gehiengoz,

ERABAKI DU

Lehenik.- “Kultura, Festak eta Gaztediko zerbitziburua” lanpostua sortzea eta “kultur programazioko teknikari” lanpostua amortizatzea, dagokion aldaketa eginaz Udaleko Lanpostu zerrendan.

Bigarrenik.- Aldaketa hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea

2015.09.29

aldaketa onartzea:
Gizarte zerbitzuburu lanpostuaren
perfil aldaketa.

relación de puestos de trabajo 2015:
Modificación del perfil del puesto del
Jefe de Servicios Sociales.

Gizarte Zerbitzuetako burua jubilatzeaz dagoenez, bere lanpostua betetzeko pausoak eman behar dira; honela, ordezkapena egiteko bi aspektu kontuan hartu behar dira; alde batetik, lanpostuaren perfila zein izango den aztertu behar da eta bestalde, oinarriak prestatu eta onartu behar dira.

Honela, lanpostuaren perfilari dagokionez, titulazio aldetik gizarte langile bat izan behar duela argi dago baina, honetaz gain, gestioan aditua ere izan behar du, departamentu honetan mugitzen den aurrekontua handia delako eta horregatik ezagutza tekniko-ekonomikoak izatea komenigarria litzateke. Honetaz gain, Gizarte zerbitzuetako arloan gestioan formakuntza izatea ezinbestekoa dela somatu da, horregatik proposatzen da arlo honetan Masterra edo posgradu formakuntza izatea.

Honela, ukanbehar espezifiko bezala, gizarte langilearen titulazioaz gain, gizarte zerbitzuetan Masterra, posgradu formakuntza edo "MBA" bat edukitzea komenigarria dela adierazi da, eta gutxienez 300 ordukoak izan behar du.

Hortaz, Giza Baliabide eta Udal Antolakuntza batzordeak irailaren 23an jaulkitako diktamena aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez

ERABAKI DU

Lehenik.- Gizarte zerbitzuetako buruaren lanpostua aldatzea eta ukanbehar espezifiko bezala, Master edo posgradiak gizarte zerbitzuetako gestioan edo MBA edo antzekoak edukitzea, gutxienez 300 ordukoak.

Bigarrenik.- Lanpostu zerrendaren aldaketa Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratzea.

5. 3/2015 Kreditu aldaketa

5. Modificación de créditos 3/2015.

Begoña Tolosa, Ogasun batzordeburuak azaldu ditu Kreditu aldaketaren edukiak.

Honen aurrean, partehartzeak honakoak izan dira:

... Jose Ignacio Asensio Bazterra PSE-EE alderdiko zinegotziak adierazi du batzordean esan zuen bezala aldeko botoa emango duela.

2015.09.29

... Ibai Iriarte San Vicente, EHBILDU alderdiko zinegotzia: "Gure aldetik gure harridura aipatu. Ohikoak dira kreditu aldaketak egitea, barne funtzionamenduari begira, ohikoa uste dugu kreditu aldaketa egitea. Gure harridura ogasun batzordeko dokumentazioa jaso eta konturatzeko garenan partida batean, hondakinen kudeaketarako, ekipamendu eta edukiontzientzat 135.000 euroko partida bat dagoela, eta iruditzen zaigu gardentasunik gabe egin dela. Atzetik aurrera egiten ari zaretela gauzak, gardentasun falta izugarria iruditzen zaigu, itzela; ez dugu bestelako informaziorik jaso, hau da, Ogasun batzordean jakiten dugu aurrena kreditu aldaketa bat egin behar dela, partida ekonomia sortu behar dela, edukiontzi izeneko partida bat ikusteko eta gaur goizean ostiralerako jasotzen dugu, Ingurumen eta Obra, Zerbitzuetako batzordea egingo denez, dokumentazioa jasotzen dugu, eta hor ikusten dugu jada, edukiontzi hauek, partida hau gauzatzeko dokumentazioa eta edukiontziak erosteko pleguak agertzen direla, harridura gurea. Oraindik txostena ez dugunean, inon oraindik ez zaigun informatu. Daukagun informazio bakarra egunkari bati alkateak eman dion elkarrizketa bat, non ere gauzak ere gehiegi argitzen ez ziren; ez dakigu edukiontzi hauekin zer nolako sistema ezarri nahi den, hau da, borondatezkoa izango den, birziklatze tasak jaitsiez gero inongo erabakirik edo inongo, bueno, zer egiteko asmoa dagoen, ez dakizkigu zifra ekonomikoak. Gauza bat da edukiontziak erostea, bilketa sistemaren kudeaketaren gaineko kostuak daude eta ez dakigu hauek Mankomunitatearekin hitz eginak izan diren edo ez. Ez dugu ulertzen, nola duela 10 hilabete aldatu ziren azpiegitura batzuk eta edukiontzi batzuk eta ondo funtzionatzen zuen sistema batek, %70 berzikaltze tasak ematen zituenak aldatzeko prest zaudeten eta gainera, hau inongo babesik gabe, babesia esan nahi dut, informe teknikoetan, ez dakigulako zer nolako sistema jarri nahi den, ez dakigu sistema honek zer nolako emaitzak ematea aurreikusten duzen, eta harrigarria iruditzen zaigu hau dena tokiko, edo kasu honetan batzordetikan, Ingurumen eta obretako batzordetik pasa aurretik. Oraindik, ez da batzorde bat ere egin legealdi hau hasi zenetik, eta jada hemen dago gaia. Larritzen gaitu gardentasun falta horrek, informazio bakarra egunkarietakik bakarrik jaso dugu herritarrek bezala, eta horrenbestez kontra bozkatuko dugu. Iruditzen zaigu beste modu batera egin behar zela, zuek esan duzuen argi eta garbi aldatu egin behar duzuela. Baina horren aurrean txostenak eskatzeko eskubidea daukagu, beharra ere badagoela, eta agian zuek daukazue, guk ez ditugu ikusi. Neurri batean "salto al vacío" dela iruditzen zaigu jakin gabe, zer nolako sistema jarri behar duzuen; argi dagoena da batzordetik pasa aurretik jada erabakia hartuta daukazuela. Ulertzen dugu baita gehiengoa duzuela, baina ulertzen dugu ere, oposizioarekin sistemak edo formak eduki daitezkeela, nahiz eta iritzi desberdinak izan. Beraz, guk kontra egingo dugu eta iruditzen zaigu formak gardentasunari bizkarra ematen diotela."

Alkateak: "Hondakinen zabor bilketaren inguruan ditugun iritzi desberdinak jakinak dira, askotan hitz egin dugu urte luze hauetan gai honen inguruan.

Gaur, kreditu aldaketa onartzen dugu eta ulertu dut, zuk aipatu dituzun iritzi horien arabera, kontra egiteko arrazoi bakarra partida bakar hori dela. Gaur egiten duguna kreditu modifikazio honen barruan partida bat habilitatu. Batzordean jorratuko dugu gaia. Guk orain gure azterketak egiten ari gara eta erabateko gardentasunez eta partaidetzako inolako oztoporik gabe jorratuko ditugu gaiak batzordean eta erabakiko dugu. Gaia da kreditu aldaketa hau beharrezkoa ikusten genuela, beti ere, urte amaierako aldaketa bat egin beharko bagenu. Horretarako txostenak edo azterketak egongo dira, lehen egon ez ziren bezala. Orduan, izango da garaia, edukiko dugu denbora batzordean aztertuko dugu eta gero, txosten horien arabera, erabakiko dugu zein den eredu egokia, zabor bilketa hori ahalik egokiena egiteko Tolosako herrian."

2015.09.29

Ibai Iriarte San Vicente(EHBILDU): *“Tolosako udaleko web orrian ingurumenari klik egin da argi eta garbi ikusten dira hondakin mahaian egon ziren adituak. Zuetako batzuk ere parte hartu zenuten bertako batzordeetan. Hor daude Idemak egindako 4 txosten eta 4 informe horiek, herritarrekiko egin ziren informazio eta sistema ezarri aurretik eta inongo erabaki hartu aurretik egin ziren lanketa guzti horiek. Beraz, txostenak ez daudela ez da egia eta horretarako zaudete zuek momentu honetan eta ingurumen departamentuan daude txosten guzti horiek. Bestalde, atzetik aurrera egitea iruditzen zait, partida bat habilitatzen duzue oraindik eta irudipena daukagu erabakia hartuta daukazuela. Erosteke pleguak gaur goizean bidali dizkiguzuelako eta ostiralean egingo den batzordeansartu nahiko dituzuelako. Oraindik iruditzen zaigu edukiontziak, hau da, azpiegitura horiek erosi aurretik jakin beharko genituzkeela eta txostenak izan beharko genituzkeela eta eztabaidatu ez ditugula egin. Beraz, azpiegiturak erosi nahi izatea oraindik txosten sektorial guzti horiek, berziklatzen mailari eta aurreikuspen horiek izan gabe atze aurretik lanak egitea joatea dela.”*

Alkateak: *“Garai bateko eztabaidak ez ditugu errepikatuko berriz, baina egin duzun adierazpenekin, garbi utzi nahi dut hondakin mahai hori iritziak partekatzeke gune bat izan zela, ez azterketarako. Idemako txosten horretan 3 eredu aztertzen zirela eta 3 horietako bat ere ez zela jarri. Tolosan jarri zen beste bat inongo bozketarik gabe.”*

Partehartzea bukatutakoan, diktamena azaldu da:

Tolosako Udalaren 2015ko Aurrekontuaren barnean kreditu transferentzien, gaikuntzaren eta kreditu gehigarrien bidez izapidetzen den espedientea tramitatzen ari da.

Espediente honi dagokion gastuen proposamena banatu zaie batzordekideei, eta Kontuhartzaileak proposatzen den aldaketa aztertu du.

Kreditu aldaketarako proposamena hau da:

OHIZKO OSOKO BILKURA

2015.09.29

AZALPENA	PARTIDA			Aldatutako Aurrekontua 2/2015 esp.	Aldatutako Aurrekontua 3/2015 esp.	Kreditu Aldaketa		Aldatutako Aurrekontua 3/2015 esp.
	Org	Eko	Fun			Gehi	Jeitsi	
KAP.1 PERTSONAL GASTUAK								
Laboral ez finkoa. Enpleguaren sustapena	1100	131.01	24100	0,00	23.000,00	23.000,00	0,00	23.000,00
Beste pertsonal gastuak	0200	150.00	92900	100.000,00	200.000,00	100.000,00	0,00	100.000,00
Gizarte Segurantzza. Enpleguaren sustapena	1100	160.01	24100	0,00	7.400,00	7.400,00	0,00	7.400,00
Kap.1:				100.000,00	230.400,00	130.400,00	0,00	130.400,00
KAP.2 ONDASUN ARRUTEN GASTUAK								
Azpiegituren mant. Zirkulazioa eta aparkalekuak	0400	210.01	13310	25.000,00	18.000,00	0,00	7.000,00	-7.000,00
Azpiegituren mant. Bide publikoak	0700	210.01	15320	332.987,00	377.987,00	45.000,00	0,00	45.000,00
Edifizioen mant. Gizarte zerbitzuak	0500	211.01	23100	14.000,00	25.000,00	11.000,00	0,00	11.000,00
Edifizioen mant. Eraikuntzen kontserbazioa	0600	211.01	15220	200.000,00	255.000,00	55.000,00	0,00	55.000,00
Hornidurak. Hondakinen bilketa	0700	221.99	16210	5.000,00	65.000,00	60.000,00	0,00	60.000,00
Hornidurak. Parke eta lorategiak	0700	221.99	17100	15.000,00	20.000,00	5.000,00	0,00	5.000,00
Jarduerak. Partaidetza	0100	226.06	92400	20.000,00	14.000,00	0,00	6.000,00	-6.000,00
Jarduerak. Kulturaren sustapena	0800	226.06	33410	235.065,00	241.065,00	6.000,00	0,00	6.000,00
Jarduerak. Jaiak	0800	226.06	33800	353.500,00	363.700,00	10.200,00	0,00	10.200,00
Jarduerak. Kirolak	1000	226.06	34100	34.000,00	40.000,00	6.000,00	0,00	6.000,00
Jarduerak. Garapen ekonomikoa	1100	226.06	43000	18.000,00	8.000,00	0,00	10.000,00	-10.000,00
Jarduerak. Gazteria	1300	226.06	33720	122.000,00	126.500,00	4.500,00	0,00	4.500,00
Jarduerak. Berdintasuna	1400	226.06	23160	94.315,00	105.615,00	11.300,00	0,00	11.300,00
Beste gastuak. Hondakinen kudeaketa	0700	226.99	16220	0,00	5.000,00	5.000,00	0,00	5.000,00
Beste gastuak. Hondakinen tratamendua	0700	226.99	16230	6.000,00	26.000,00	20.000,00	0,00	20.000,00
Garbiketa. Kale garbiketa	0700	227.01	16300	1.150.000,00	1.123.500,00	0,00	26.500,00	-26.500,00
Kontratuak. Gizarte zerbitzuak	0500	227.04	23100	217.000,00	218.000,00	1.000,00	0,00	1.000,00
Kontratuak. Etxe etxeko laguntza	0500	227.04	23110	800.000,00	850.000,00	50.000,00	0,00	50.000,00
Informatika zerbitzuak	0300	227.11	92020	112.000,00	134.000,00	22.000,00	0,00	22.000,00
Kontratuak. Obrak	0700	227.07	15300	3.000,00	26.500,00	23.500,00	0,00	23.500,00
Kontratuak. Parke eta lorategiak	0700	227.07	17100	428.500,00	450.000,00	21.500,00	0,00	21.500,00
Kap.2:				4.185.367,00	4.492.867,00	357.000,00	49.500,00	307.500,00
KAP.4 TRANSFERENTZIA ARRRUNTAK								
Ekarpenak Tolosako Hiltegiari	0700	421.01	43140	0,00	6.000,00	6.000,00	0,00	6.000,00
Dirulaguntzak Tolomendiri	0700	422.01	41400	40.900,00	50.900,00	10.000,00	0,00	10.000,00
Dirulaguntzak. Uzturre egoitza	0500	471.01	23192	84.000,00	91.000,00	7.000,00	0,00	7.000,00
Dirulaguntzak. Enpleguaren sustapena	1100	471.01	24100	0,00	345.600,00	345.600,00	0,00	345.600,00
Dirulaguntzak. Gizarte larrialditako laguntzak	0500	480.01	23140	143.130,00	157.616,00	14.486,00	0,00	14.486,00
Dirulaguntzak. Gizarte zerbitzuak	0500	481.01	23100	108.500,00	112.500,00	4.000,00	0,00	4.000,00
Dirulaguntzak. Eraikuntzen kontserbazioa	0600	481.01	15220	80.000,00	50.000,00	0,00	30.000,00	-30.000,00
Dirulaguntzak. Kulturaren sustapena	0800	481.01	33410	121.000,00	115.000,00	0,00	6.000,00	-6.000,00
Dirulaguntzak. Jaiak	0800	481.01	33800	54.087,00	54.887,00	800,00	0,00	800,00
Kap. 4 :				631.617,00	983.503,00	387.886,00	36.000,00	351.886,00
KAP.6 INBERTSIOAK								
Urbanizazio obrak	0700	601.01	15320	103.000,00	153.000,00	50.000,00	0,00	50.000,00
Hainbat eraikinetako obrak	0700	622.01	92031	115.000,00	146.000,00	31.000,00	0,00	31.000,00
Argi publikoaren inbertsioak	0700	623.05	16500	20.000,00	85.000,00	65.000,00	0,00	65.000,00
Ibilgailuak. Udaltzaingoa	0400	624.01	13000	21.500,00	28.500,00	7.000,00	0,00	7.000,00
Hondakinen kudeaketarako ekipamendua	0700	625.99	16210	14.000,00	149.000,00	135.000,00	0,00	135.000,00
Hirigintza eta obra proiektuak	0700	643.01	15300	16.000,00	46.000,00	30.000,00	0,00	30.000,00
Kap. 6 :				289.500,00	607.500,00	318.000,00	0,00	318.000,00
KAP.7 KAPITAL TRANSFERENTZIAK								
Kap. Dirulaguntzak. Erretengibel S.A.	0600	733.01	15221	219.000,00	192.820,00	0,00	26.180,00	-26.180,00
Kap. Dirulaguntzak. Eraikuntzen kontserbazioa	0600	780.01	15220	35.000,00	10.000,00	0,00	25.000,00	-25.000,00
Kap.7 :				254.000,00	202.820,00	0,00	51.180,00	-51.180,00
KAP.8 FINANTZA AKTIBOAK								
Kap.8 :				0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
GUZTIRA :				5.460.484,00	6.517.090,00	1.193.286,00	136.680,00	1.056.606,00

OHIZKO OSOKO BILKURA

2015.09.29

Hau dena finantzatzen duten baliabideak hauek dira, kapituluka:

1. GASTU IGOERAREN PROPOSAMENA			
Gastu igoeraren banaketa kapituluka hau da:			
1.1 Gastu arrunta			
Kap. 1 Pertsonal gastuak	130.400,00		
Kap. 2 Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak	357.000,00		
Kap. 4 Transferentzi arruntak	387.886,00	875.286,00	
Kap. 3 Finantza gastuak		0,00	
Kap. 9 Finantza pasiboak (maileguen amortizazioa)		0,00	875.286,00
1.2 Inbertsioa			
Kap. 6 Inbertsio errealak		318.000,00	
Kap. 7 Kapital transferentziak		0,00	
Kap. 8 Finantza aktiboak		0,00	318.000,00
GASTU IGOERA PROPOSAMENA GUZTIRA:			1.193.286,00
2. FINANTZIAZIOA			
2.1 Kreditu transferentzien bidez finantziatuta			
Gastu arrunta :			
Kap. 1 Pertsonal gastuak	0,00		
Kap. 2 Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak	49.500,00		
Kap. 4 Transferentzi arruntak	36.000,00	85.500,00	
Kap. 3 Finantza gastuak (maileguen interesak)		0,00	85.500,00
Inbertsioa			
Kap. 6 Inbertsio errealak		0,00	
Kap. 7 Kapital transferentziak		51.180,00	51.180,00
Kreditu tansferentzien bidez finantziatuta guztira:			136.680,00
2.2 Sarrera berriak edo handiagoak izateagatik kreditu gaikuntzaren bidez finantziatuta			
Kap. 3 Tasak eta beste sarrerak			
Kap. 4 Transferentzi arruntak	387.106,00		
Kap. 5 Ondare sarrerak		387.106,00	
Kap. 7 Kapital transferentziak			387.106,00
2.3 Dirutzaintza gerakinaren bidez finantziatuta			669.500,00
Kap. 8 Finantza aktiboak			669.500,00
FINANTZIAZIOA GUZTIRA:			1.193.286,00
3. LABURPENA			
Gastu igoera guztira			1.193.286,00
Finantziazioa :			
- Kreditu transferentzia		136.680,00	
- Kreditu gaikuntza		387.106,00	
- Dirutzaintzako gerakinarekin kreditu gehigarriak		669.500,00	1.193.286,00

OHIZKO OSOKO BILKURA

2015.09.29

2015ko Sarrera eta Gastuen Aurrekontuen bilakaera, 3/2015 zenbakidun Kreditu Aldaketarako espedientea barne, ondorengo koadroetan laburtzen da kapituluka:

TOLOSAKO UDALAREN GASTUAREN AURREKONTUA 2015

AZALPENA	Hasierako Aurrekontua 2015	Kreditu Aldaketa 1/2015	Kreditu Aldaketa 2/2015	Kreditu Aldaketa 3/2015	Behin-betiko Aurrekontua 2014
1. Pertsonal gastuak	7.837.733,00	0,00	100.000,00	130.400,00	8.068.133,00
2. Ondasunen erosketa eta zerbitzuak	8.233.813,00	88.415,03	382.500,00	307.500,00	9.012.228,03
3. Finantza gastuak	213.341,00	0,00	0,00	0,00	213.341,00
4. Transferentzi aruntak	3.719.197,00	253.307,37	-2.000,00	351.886,00	4.322.390,37
6. Inbertsio errealak	2.829.000,00	1.505.440,04	1.637.000,00	318.000,00	6.289.440,04
7. Kapital transferentziak	254.000,00	0,00	141.000,00	-51.180,00	343.820,00
8. Aktibo finantzarioak	600.000,00	4.195,00	0,00	0,00	604.195,00
9. Pasibo finantzarioak	887.916,00	0,00	0,00	0,00	887.916,00
GASTUAK GUZTIRA	24.575.000,00	1.851.357,44	2.258.500,00	1.056.606,00	29.741.463,44

TOLOSAKO UDALAREN SARREREN AURREKONTUA 2015

AZALPENA	Hasierako Aurrekontua 2014	Kreditu Aldaketa 1/2014	Kreditu Aldaketa 2/2014	Kreditu Aldaketa 3/2015	Behin-betiko Aurrekontua 2014
1. Zuzeneko zergak	5.585.300,00	0,00	0,00	0,00	5.585.300,00
2. Zeharkako zergak	230.000,00	0,00	0,00	0,00	230.000,00
3. Tasak eta bestelako sarrerak	3.804.890,00	0,00	0,00	0,00	3.804.890,00
4. Transferentzi aruntak	12.504.160,00	38.303,07	0,00	387.106,00	12.929.569,07
5. Ondasun sarrerak	1.088.650,00	0,00	0,00	0,00	1.088.650,00
6. Inbertsioen besterenganaketa	156.000,00	0,00	0,00	0,00	156.000,00
7. Kapital transferentziak	6.000,00	184.883,65	473.000,00	0,00	663.883,65
8. Aktibo finantzarioak	600.000,00	1.628.170,72	1.785.500,00	669.500,00	4.683.170,72
9. Pasibo finantzarioak	600.000,00	0,00	0,00	0,00	600.000,00
SARRERAK GUZTIRA	24.575.000,00	1.851.357,44	2.258.500,00	1.056.606,00	29.741.463,44

2015.09.29

Beraz, 3/2015 espedientearen aurrekontu partiden kreditu igoeren proposamenak eta finantzatzen dituzten errekurtsioak aztertu ondoren.

Kontuan harturik, gastuaren premia beharra nahikoa egiaztatzen dela, hala nola igoera horiek finantzatzen dituzten errekurtsioen efektibotasuna, eta kreditu aldaketa honek aurrekontuaren garapena arindu eta zerbitzuen kudeaketa hobetu egingo duela.

Ikusiz kontuhartzaileak jaulki duen txostena, non agerian dagoen espedientearen instrukzioa indarrean dagoen legezko arautegiarekin bat datorrela, eta Ogasun batzordeak 2015eko irailaren 24an jaulkitako diktamena aztertu ondoren, Udalbatzak, EAJ-PNV (9) eta PSE-EE (1) alderdien aldeko botoekin eta EHBILDU (6) alderdiaren aurkako botoekin, gehiengoz,

ERABAKI DU

Lehena.-Tolosako Udalaren 2015eko aurrekontuari dagokion 3/2015 kreditu aldaketa haseraz onartzea

Bigarrena.-Erreklamatzeko aukera egon dadin, espedientea hamabost egun jendaurrean jarrita edukitzea. Erreklamaziorik ez badago, erabakia hau behin betikoa izango da.

6. Kreditu aldaketa eta egonkortasuna. Komunikazioa plenoari.

6. Comunicación al Pleno de la modificación de créditos y estabilidad presupuestaria.

Kontuhartzaileak kreditu aldaketa eta aurrekontuen egonkortasuna ebaluatzeko egindako txostenaren berri eman zaie plenoko kideei. Bere edukia hau da:

“Administrazio izaera duten entitateen 2015eko behin-betiko aurrekontuak, Tolosako Udalaren 3/2015 kreditu aldaketaren ondoren, betetzen du finantza iraunkortasunaren 2015erako ezarritako helburua, baina ez ditu betetzen aurrekontu egonkortasunaren helburua eta gastu araua.

Aurrekontu egonkortasunaren helburua betetzen ez duten entitateek plan ekonomiko-finantzarioa egin behar dute, jarduneko ekitaldian edota hurrengoan helburu horiek bete ahal izateko.

Hala ere, helburua ez betetzearen arrazoia diruzaintza gerakina erabili izana denez, 1/2013

2015.09.29

Foru Arauaren 5.3 artikuluan eta Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzeko jarraibideak onartzen duen Akordioaren 1. Erregelaren ezarritakoari jarraituz, plan ekonomiko-finantzarioaren ordezkari komunikazio bat aurkeztu daiteke Udaltzatzen, zirkunstantzia hori adierazita, kontuhartzaileak finantza iraunkortasuna aztertu eta ebaluatzeko egiten duen txostenarekin batera.

Gastuaren araua betetzen ez duten entitateek ere, plan ekonomiko-finantzarioa egin behar dute, jarduneko ekitaldian edota hurrengoan gastu araua bete ahal izateko.

Dena den, 13/2014 Foru Arauaren 2. artikuluan 1/2013 Foru Arauaren 5. artikuluan egindako aldaketari esker, gastu araua betetzen ez duten entitateek, planaren ordezkari komunikazio bat aurkeztu diezaizkete Udaltzatzen, kontuhartzaileak sinatuta, entitatearen finantza iraunkortasuna aztertu, ebaluatu eta egiaztatuko duena, aldi berean baldintza hauek guztiak betetzen badituzte:

- a) aurreko urteko ekitaldiaren likidazioan edo, horren ezean, bere aurreikuspenean, gastu orokorretarako diruzaintza gerakina eta aurrezki garbia positiboak izatea
- b) urteko zor publikoko helburua betetzea
- c) urteko defizit helburua betetzea edo, hala badagokio, ez betetzearen arrazoia diruzaintza gerakinaren erabilpena izatea.

Administrazio izaera duten entitateen 2014ko aurrekontu bateratuaren likidazioan aurrezki garbia positiboa da, hain zuzen 1.966.364,65 eurokoa, eta gastu orokorretarako diruzaintza gerakina ere positiboa da kalkulatzeko den bi entitateetan kasuan: Udaltzaren kasuan 7.389.897,89 euro eta lurreamendi egoitzan 417.755,45 euro.

Bestalde, 2015eko zor publikoaren helburua betetzen dute administrazio izaera duten entitateek, eta defizit helburua ez betetzearen arrazoia diruzaintza gerakinaren erabilpena da.

Beraz, entitate hauek ez daude behartuta plan ekonomiko-finantzarioa onartzera.

Hau dela eta, kontuhartzaile honek ondorengo txostena egin du, Udaltzari jakinaraziko zaiona, eta plan ekonomikoa ordezkatzeko duena:

TXOSTENA

Aurrekontuen egonkortasuna

Tolosako Udaltzaren 3/2015 Kreditu aldaketarako espedientearen ondoren administrazio

OHIZKO OSOKO BILKURA

2015.09.29

izaera duten entitateen 2015eko behin-betiko aurrekontuak 3.734.438,72 euroko defizita du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera.

Ondorio horretarako, ez denez aurreikusten ondorengo doiketarik beharko duen eragiketa adierazgarririk, kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko sarreraren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko gastuen arteko diferentziarekin parekatu da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta.

3/2015 kreditu aldaketa egin aurretik behin betiko aurrekontuak 3.064.938,72 euroko defizita zuen. Beraz, 3/2015 kreditu aldaketak 669.500,00 euroko defizita sortu du.

Ondorengo taulan azaltzen dira datuak:

Egonkortasuna	Hasierako Aurrekontua (SEC) 2015	Aldaketa 1/2015 (SEC) 2015	Aldaketa 2/2015 (SEC) 2015	Aldaketa 3/2015 (SEC) 2015
Sarrerak Kap.1 - 7	28.020.850,00	28.244.036,72	28.717.036,72	29.104.142,72
Gastuak Kap. 1 - 7	27.676.313,00	29.523.475,44	31.781.975,44	32.838.581,44
Superabita / Defizita	344.537,00	-1.279.438,72	-3.064.938,72	-3.734.438,72
Diruzaintza Gerakinaren erabilera		1.628.170,72	3.413.670,72	4.083.170,72
Finantzaketa ahalmena	344.537,00	348.732,00	348.732,00	348.732,00

Defizit horren arrazoia diruzaintzako gerakinaren erabilera izan da. 3/2015 kreditu aldaketaren espedienteak finantzatzeko diruzaintzako gerakinetatik 669.500,00 euro erabili dira.

Honen eragina kenduta, behin-betiko aurrekontuak orain arteko 348.732,00 euroko superabita mantentzen du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera.

Beraz, plan ekonomiko-finantzarioaren ordezkari Udalbatzan komunikazio bat aurkezteko baldintzak betetzen dira.

OHIZKO OSOKO BILKURA

2015.09.29

Gastuaren araua

2014ko eta 2015eko ekitaldien artean, gastu konputagarriaren bariazioa % 8,58 da, Tolosako Udalaren 3/2015 kreditu aldaketaren ondoren.

Aurreko kalkulua egiteko, goian zerrendatutako entitateen datu bateratuak erabili dira, ondoko taulan xehatzen den moduan:

GASTU KONPUTAGARRIAREN BALORAZIOA	AURREKONTU BATERATUA (SEC) 2015
Gastu ez finantzarioa (1-7 kap.) 2014ko likidazioan	30.401.804,75
Interesak 2014ko likidazioan	-179.797,28
SEC doiketak:	
-inbertsio errealak besterenganatzeagatik 2014an	-659.735,20
Finatzaketa lotua duten gastuak 2014an	-1.486.784,59
2014ko gastu konputagarria	28.075.487,68
Gastu ez finantzarioa (1-7 kap.) 2015	32.838.581,44
Interesak 2015	-222.867,00
SEC doiketak:	
-inbertsio errealak besterenganatzeagatik 2015ean	-156.000,00
-aurrekontuaren exekuzio mailarengatik	-851.548,00
Finatzaketa lotua duen gastuak 2015ean	-1.123.970,45
Araudian egindako aldaketen eragina dirubilketa	0,00
2015eko gastu konputagarria	30.484.195,99
Gastu konputagarrien bariazioa	8,58%
HELBURUA	1,30%

Kasu honetan ere, plan ekonomiko-finantzarioaren ordezkari Udaltzaren komunikazio bat aurkezteko baldintzak betetzen dira.

Lehendabiziko baldintza

Administrazio izaera duten entitateek aurrezki garbia positiboa izan dute 2014ko likidazioan (1.966.364,65 euro) eta diruzaintza kalkulatu duten bi entitateek positiboa dute (Tolosako Udalak, 7.389.897,89 euro, eta lurreamendi egoitzak, 417.755,45 euro).

Bigarren baldintza

Entitate hauek 2015eko zor helburua betetzen dute. Ondoko taulan xehatzen dira datuak:

OHIZKO OSOKO BILKURA

2015.09.29

FINANTZEN IRAUNKORTASUNA	AURREKONTU BATERATUA (SEC) 2015
ZOR BIZIA 2015/12/31an	10.743.899
SARRERA ARRUNTAK. 2014ko likidazioa	28.982.188
ZOR BIZIA / SARRERAK (1 - 5) kap.	37,07%
MUGA	95,00%

Kalkulua egiteko, 2014ko abenduaren 31ko zor biziaren zenbatekotik abiatu gara, indarrean ziren eragiketa guztiengatik, abaletatik eratorritako arriskua barne; emaitzari gehitu zaizkio 2015erako aurreikusi diren eragiketak eta kendu zaizkio 2015erako aurreikusitako amortizazioak. Zor biziaren zenbatekoan ez dira sartu UFFFarengatik itzuli gabe gelditzen diren saldoak.

Hau da banaketa zor biziaren banaketa:

-Udala	9.969.361,65
-Udala. 2015eko aurrekontuan aurreikusita	600.000,00
-Erretengibel Bankoa	105.044,00
-Erretengibel Kutxa	69.493,00
	10.743.898,65

2015erako ezarritako helburua magnitude hori %95 baino txikiagoa izatea da.

Hirugarren baldintza

Administrazio izaera duten entitateen behin-betiko aurrekontuak ez du betetzen aurrekontu egonkortasunaren 2015erako helburua.

Dena den, helburua ez betetzearen arrazoia diruzaintzako gerakinaren erabilera izan da, ondorengo taulan ikusten den moduan:

OHIZKO OSOKO BILKURA

2015.09.29

Egonkortasuna	Hasierako Aurrekontua (SEC) 2015	Aldaketa 1/2015 (SEC) 2015	Aldaketa 2/2015 (SEC) 2015	Aldaketa 3/2015 (SEC) 2015
Sarrerak Kap.1 - 7	28.020.850,00	28.244.036,72	28.717.036,72	29.104.142,72
Gastuak Kap. 1 - 7	27.676.313,00	29.523.475,44	31.781.975,44	32.838.581,44
Superabita / Defizita	344.537,00	-1.279.438,72	-3.064.938,72	-3.734.438,72
Diruzaintza Gerakinaren erabilera		1.628.170,72	3.413.670,72	4.083.170,72
Finantzaketa ahalmena	344.537,00	348.732,00	348.732,00	348.732,00

Diruzaintza gerakinaren eragina kenduta, behin-betiko aurrekontuak 348.732,00 euroko superabita mantentzen du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera.

Finantza iraunkortasunari buruzko egiaztapena

Tolosako Udalaren 3/2015 kreditu aldaketa, guztira, 1.193,286,00 eurokoa izan da. Horietatik, 136.680 euro kreditu transferentzien bidez finantzatu dira eta 387.106 euro kanpoko sarrerekin.

Gainontzeko 669.500 eurotatik, ia erdia (311.000 euro) inbertsioak egiteko izango dira.

Hau da inbertsioen zerrenda:

	ZENBATEKOA
Urbanizazio obrak	50.000,00
Eraikinetako obrak	31.000,00
Argi publikorako inbertsioak	65.000,00
Udaltzaingorako moto berria	7.000,00
Hondakinen bilketarako ekipamendua	135.000,00
Hirigintza eta obra proiektuak	30.000,00
GUZTIRA	318.000,00

Inbertsio hauek ez dira gastu errepikakorak eta ez dute administrazio izaera duten finantza iraunkortasuna konprometitzen.

2015.09.29

Beste 100.000,00 euro 2012ko aparteko ordainsarien zati bati aurre egiteko dira. Hau ere ez da aurrerantzean errepikatuko den gastu bat.

Bestalde, entitate baten finantza iraunkortasunaren adierazle bat aurrezki garbia da.

Administrazio izaera duten entitateen aurrezki garbia positiboa izan zen 2014ko aurrekontuaren likidazioan (1.966.364,65 euro), kontuak bateratu ondoren. Eta 2015eko aurrekontuan aurrezki garbia positiboa izaten jarraituko duela aurreikusten da. Hain zuzen ere, 1.134.401,65 euro, behin-betiko aurrekontuaren datuen arabera,

Zenbateko hau sarrera arrunten %4a da. Ratio hau gutxienez %2 eta %5 arteko tartean egotea gomendatzen da.

ONDORIOAK

Administrazio izaera duten entitateen 2015eko kontu bateratuen behin-betiko aurrekontuak, Tolosako Udalaren 3/2015 kreditu aldaketaren ondoren, aurrekontu egonkortasunaren helburua eta gastu araua betetzen ez baditu ere, aztertutako informazio ekonomikotik ateratzen den ondorioa da entitate hauen egoera finantzarioa iraunkorra dela eta aipatutako urraketaren ondorioz ez dela konprometituta geratzen”.

Plenoa jakinaren gainean geratu da.

7. Emakumeen Mundu Martxaren inguruko adierazpen instituzionala.

7. Declaración Institucional con motivo de la Marcha Mundial de las Mujeres.

... Jose Ignacio Asensio Bazterra(PSE-EE): *“Erabat ados gaude adierazpen instituzional bezala onartuko dugu.”*

... Onintza Lasa Arteaga, EHBILDU : *“gure aldetik bat egiten dugu adierazpenarekin eta, bide batez, ere aprobetxatu gonbidapena egiteko, esanda bezala, ostegunean iritsiko da Tolosara eta gonbitea egin Zerkausian 7 t’erdietan ere batukada egongo delako eta pintxo potea eta bat egin dezagun merezi duen harrera beroa izan dadin.”*

... Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, (EAJ-PNV): *“Bost urtean behin Emakumeen Mundu Martxa abian jartzen da. 1995ean Quebec-ko osatutako “Ogia eta larrosak” mugimenduaren*

2015.09.29

pausoak jarraitzen. Hainbat herrialdeko talde feministak desberdinek elkarrekin egiten dute ibilbidea pobrezia eta bortxakeria desagertarazten saiatzen.

Tolosako udalak, beti bezala, bere laguntza eta babes eskaini nahi dio eta lanean jarraituko du egitazko berdintasuna lortu arte. Beraz, adierazpen instituzionala sinatzea eta bidaltzea proposatzen dut.”

Idazkariak Emakumeen Mundu Matxaren inguruko adierazpen instituzionala irakurri du. Hitzez hitz honela dio:

“TOLOSAKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA, EMAKUMEEN MUNDU MARTXARI BABESA EMATEKO

Emakumeen Mundu Martxa 1995ean “Ogia eta larrosak” izeneko lehen martxa batekin hasi zen mugimendua da, ondoren Emakumeen Mundu Martxa (EMM) izena hartu zuena. Urteetan ekimen hau nazioarte mailan emakumeen arteko aliantzak sortzen aritu da lanean, eta helburu nagusi gisa sare feminista bat sortu eta munduan nagusi den matxismoa ikusaraztea izan du.

Hainbat ekimenen artean, bost urtetik behin nazioarte ekimen bat antolatzen da eta aurtengoa IV. Nazioarteko Ekintza izango da. Azken hau, Europa osoa zeharkatuko duen ibilbide batekin gauzatuko da, martxoaren 6an Kurdistanen hasi eta urriaren 17an Lisboan bukatuko dena. Hilabete hauetan zehar EMMko hainbat kide herrialde ezberdinetan barrena ibili dira, sarea sortu eta hainbat aldarrikapen zabaltzen. Martxa Euskal Herrira irailaren 28an helduko da Tafallara eta urriaren 4a bitarte herri ezberdinak zeharkatuko ditu Bilbon azken ekimen nazionalarekin amaitu arte.

Aurten lau lan-ildo adostu dira mundu mailako emakumeen sarearen eduki eta helburuak barnebiltzen dituztenak:

- **Sistemarteko indarkeriak.** Egunerokoan mendean hartu eta azpiratzen gaituzten eta gure gorputz eta lurraldeetan egikaritzen diren opresio sistema anitzak salatzen ditugu. Pobrezia, lurraldeen desjabetzeak, gure gorputzekiko eskubideak ukatzea, indarkeria zuzen, sinboliko eta kulturalak... batera jarduten dute emakume, trans, lesbiana, migrante, aniztasun funtzional, beltz edo indigenon gorputzen aurka. Indarkeria matxistaren konplexutasuna salatzen dugu eta aldi berea oinarria ikusarazten dugu, hau da, indarkeria matxistak beste hainbat indarkeriekin batera jarduten duela zeharlerro ezberdinen bidez.
- **Bizitzaren iraunkortasuna** bizitza erdigunean jartzea da eta inola mozkin ekonomikoa edozerren gainetik lortzea helburu duen merkatuen logikaren baitan. Jendarte bat ez da justua bizitza mantentzea helburu duten eta tradizionalki feminizatuak izan diren lan horiek ikusezin egiten dituen artean. Elikadura burujabetza, lurra txikitzeari, kutsatzeari, desjabetzeari eta lapurtzeari uztea, oinarritzakoa da.
- **Gorputzak eta sexualitateak.** Gure gorputzak gure lurraldeak dira, eta beraz, haiekiko jabetza eta autonomia aldarrikatzen ditugu. Gure gorputzen eta sexualitateen jabe gara, gure generoa nahi bezala definitzen dugu eta nahi ditugun harremanak ditugu. Lesbianon, transon, aniztasun funtzionalon edota arrazializatutako gorputzak borroka feministaren zati garrantzitsua dira.
- **Sarean lan egitea eta aniztasuna kudeatzea.** Lurralde ezberdinetatik gatozen emakumeak gara, bizipen, ibilbide, jakintza, gaitasun, identitate, borrokamodu eta aldarrikapen ezberdinekin, eta horiek defendatu, balioetsi eta errekonozitu nahi ditugu,

2015.09.29

hierarkiarik ezarri gabe. Aldarrikatzen dugu aniztasuna aberastasun bat dela, ondasun komun bat, gu batzeko balio duena, eta patriarkatuaren oinordetzarekin, emakumeak historikoki etsaitu eta banatu dituen tradizioarekin hausteko balio duena.

Tolosako Udalak Emakumeen Mundu Martxari babesa eman, eta bere esku dauden baliabideekin berdintasunaren alde lan egiteko eta neurriak hartzeko konpromisoa hartzen du, helburu hauekin:

- **Indarkeriari** dagokionez, ekintza protokoloak martxan jarri, sentsibilizazioan lan egin eta indarkeria matxistari dagokion formakuntzak burutzea. Halaber, EMMren protokoloari gure babesa adierazten diogu eta indarkeria sexistaren aurkako salaketa eta deialdiekin bat egiteko konpromisoa hartzen dugu.
- Zaintzaileen **bizitzak hobetzeko** lan egitera eta zaintza lanak erazteko zerbitzu publikoak ahalbidetzeraz.
- **Aniztasun sexuala** eta genero identitatea kontuan izanik lan egitea, eta lesbofobia, transfobia, arrazismoa eta kapazitismoaren aurkako planak burutzea.
- **Emakumeen jabetasuna** sustatzea eta baita saretze eta emakume taldeen sorrerak bultzatzea.

Urriaren 1ean, 19:00etan, Tolosara iritsiko da Martxa.

Gure babesa erakusten duen adierazpen hau Emakumeen Mundu Martxako Europako Ordezkaritzara bidalia izango da.”

Mozioa, bozkatu egin da, eta aho betez **ONARTU DA.**

8.-Errefuxiatuen Krisi Humanitarioaren inguruan adierazpen instituzionala

8. Declaración institucional sobre la crisis humanitaria de personas refugiadas

... Jose Ignacio Asensio Bazterra (PSE-EE): “Adierazpen oso garbia da eta gure aldetik adostasuna adierazi nahi dut.”

... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez (EHBILDU): “Bat egingo dugu adierazpenarekin, baina badugu kezka bat adierazpenaren inguruan. Izan ere, ondorioak ondo erakusten dira, salatzen da Europako hainbat estatuetan gertatzen diren europar balioen endekatze hori, insolidaritate hori, baina ez da inon aipatzen gerra horien kausa eta gerra horien hasieran Europa ere, neurri batean, egon dela edo gutxienez, Europak batasuneko hainbat estatu egon direla eta kausa izan direla, bai Afganistanen, Iraken, Sirian, Libian, egoera ezegonkor izugarriak sortuta eta ez haien herritarren intereserako, ezta jakina Europako herritarren intereserako. Estatu Batuen hegemoniaren alde sortutako gerrak eta hori agertu beharko luke adierazpen honetan. Ondorioak ere kausan izaten dituzte. Beraz hori faltan sumatzen dugu baina askoz inportantegoa iruditzen zaigu denok bat agertzea gertakizun horren aurrean, gure elkartasuna adierazten eta horregatik bat egingo dugu adierazpen instituzional honekin.”

2015.09.29

... Alkatea: *"Egia da irudiak ikaragarriak dira eta horren aurrean derrigorrezkoa da adierazpen instituzionala aho batekoa izatea. Zerbait aipatzekotan adierazpen honi dagokionez eta migrazioaren inguruan lanean dauden kolektiboak horrela adierazi digutelako, adierazpenean jasota dago ez bakarrik gatazka egoerengatik datozen pertsonak baizik eta pobrezia egoeran dauden herrialdeetako pertsonak. Horrek seguraski gai hau kudeatzeko garaian herrian, hainbat zailtasun eta egoera desberdin bizituko ditugu. Baita ere, aipatuko nuke Udalak gaur hartzen duen konpromisoa gai hau Tolosako migrazioaren gaia jorratzen duten kolektiboekin batera eta horregatik pentsatzen genuen, ez hainbeste kausaz hitz egin, baizik eta egoeraren aurrean Udal honek zein erantzun eman beharko lukeen horretan ados jartzea. Beraz, noski, gu ere ados."*

Adierazpenak honela dio:

"Gerrak hondatutako zenbait herritik, zehazki Siria, Afganistan, Sudan eta Irak-etik, jende-oleak iristen ari zaizkigu Europara. Egoera gero eta larriagoa da eta horrek krisi humanitario benetan latza sortu du.

Europar Batasuneko zenbait herrialdeen jarrerak kezkatzen gaitu erantzukizunez jokatu beharrean gaude. Horregatik, krisi humanitario honi modu aktiboan eta elkartasunez eta justizia humanitarioaz erantzuteko eskatu behar zaie bertako estatu kideetako agintari eta gobernuari. Gerra hauetatik ihes egiten duten edo tragedia hau aprobetxatzen duten mafien biktima diren pertsonen hartzeko beharrezko bitartekoak bidera ditzaten ere eskatu behar zaie.

Horren aurrean, Tolosako udalak:

1. Giza eskubideak defendatzeko daukan konpromiso humanitarioa berresten du, eta Europar Batasunaren eta Europako Kontseiluaren sorrera bultzatu zuten printzipioak gogora ekartzen ditu.

Errepikatzen du nahitaezkoa dela nazioarteko ahalegina eta lankidetzaren areagotzea, guztiona den erronkaren aurrean mundu mailako erantzuna indartzeko eta muturreko larritasun egoeran dauden pertsonen bizitzak babesteko.

Europar Batasunari eskatzen dio migrazio eta asilo politika malguagoak ezartzeko, gatazka edo pobrezia egoeran dauden herrialdeetako pertsonen Europara heltzeko aukera izan dezaten, bizia arriskatu gabe.

2. Eusko Jaurlaritzak azaldutako egoeratik datozen errefuxiatuak hartzeko sortzen duen lantaldean, EAEko gainerako erakundeekin harremanean eta koordinazioan, udalentsat sortzen den programan parte hartzeko borondatea daukala adierazten du Tolosako Udalak.

3. Tolosak aztertu egingo du migrazioaren eta errefuxiatuen alorrean tokiko mailan egiten duen lana nola artikulatzen eta sakontzen jarraitu, gai honetan espezializatuta dauden elkarte eta erakunde sektorialen ekarpenarekin."

2015.09.29

Jarraian, adierazpen instituzionala bozketara jarri da eta, aho batez, **ONARTU DA.**

9. Errefuxiatuen krisi humanitarioaren inguruko mozioa (Amnesty-k aurkeztutakoa).

9. Moción presentada por Amnesty sobre la crisis humanitaria de personas refugiadas

Aurreko adierazpen instituzionala onartu denez, ez da tratatu

10. Tolosako Podemos-Ahal Dugu taldeak aurkeztutako mozioa.

10 Moción presentada por el Círculo Municipal de Podemos-Ahal Dugu de Tolosa

8. n puntuko adierazpen instituzionala onartu denez, mozio hau ez da tratatu

11. Tolosako EHBILDU udal taldeak Askapena taldea internazionalistaren alde aurkeztu duen mozioa.

11. Moción presentada por EHBILDU en apoyo al grupo internacionalista Askapena.

... Jose Ignacio Asensio Bazterra (PSE-EE): “*Guk beti bezala epaien erabakiak onartzen ditugu eta bi mozioen aurrean botoa kontrakoa izango da.*”

... Ibai Iriarte San Vicente, EHBILDU: “*Gure aldetik gu izan ginen askapenaren aldeko mozioa aurkeztu genuena. Arrazoa argia da, askapenak urteak daramatza internazionalismoa, herrien arteko harremanak, sareak lantzen eta guk aurkeztu dugun mozioan, hasieran jartzen duena, elkartasuna da herrien samurtasuna, argi daukagu nazioarteko kultura, herrien desberdin arteko harremanak horizontalak izan behar direla eta ez gaur egun ematen diren bezala, argi eta garbi ikusi da aurreko puntuan, bai Siria, Irak, Palestina, zein egunero-egunero estretxoa ibiltzen diren pertsona horietan argi ikusten da ze injustua den nazioarteko politika. Askapenak urteak daramatza lanean, lan humanitariotik hareago, lan politiko bat egiten, eta lan politikoak diogu, azken finean, lanketa humanitarioak eta ikuspen humanitarioak askotan nazioarteko gatazketan, pertsonen fluxu hauetan, eta injustizi guzti hauetan, hauen atzean dauden arrazoi politikoak saihesten ditugu, gu garelako arrazoi politiko horien sortzaileak. Askapenak zuzenean jotzen du gatazka horien atzean dauden arazo politikoetara. Eta horregatik salatzen genuen lehenago Europar batasunaren erantzukizuna falta zela adierazpenean, nahiz eta bat egin dugun. Eta horregatitik pentsatzen genuen ere mozio hau, EAJ-k aurkeztu duena, hanka motz gelditzen zela. Guztiok ados gaude, epaiketa eta makrosumario hauek, dena ETA da lelopean erabat zaharkituak eta inoiz gertatu ez behar ez ziren amets gaiztoak izanda ere, gertatu dira eta gertatzen segitzen direla, ez soilik Askapenarekin baizik eta badatozte beste batzuk eta etorriko dira beste makroepaiketa gehiago eta ondorioz, EAJk aurkeztutako mozioa, baina hanka motz gelditzen da. Askapenak 28 urte daramatzalako internazionalismoa garatzen, lanketa hori eskertzekoa delako eta iruditzen zaigulako lanketa hori Tolosako udalak bere*

2015.09.29

babesa eskaini beharko liokeela. Ez soilik kausa honi, baizik eta talde berari ere. Beraz, abstenitu egingo gara EAJk aurkeztu duen aurrean, hanka motz gelditzen delako, ez da epaiketa bati ezezkoa ematea, salatzea, baita erakundea zein epaiketa egin ez eta atxilotuak egon diren 5kide hauen erreparazioa eta absoluzioa eskatzea. Guk nahiko genuke gurea onartzea, EAJk- berea aurkeztu du baina berriz esanaz motz gelditzen dela iruditzen zaigula.”

Idazkariak EHBILDU udal taldeak aurkeztu duen mozioa irakurri du.

Hitzez hitz honela dio:

“ASKAPENA TALDE INTERNAZIOANISTARI BABES ESKAINTZA

Elkartasuna da herrien arteko samurtasuna”. Oinarrizko printzipio bat da, gizakiak elkarbizitzarako lege eta araudiak, zuzenbidea eta irizpide etikoak sortu zituenetik. Hala ere, pertsonen naiz herrien arteko elkartasun eza agerikoa da oso, geure mundu honetako gaitzen aurrean egiak itxi nahi ez dituenarentzat.

Elkartasunak, asmo honen bildumak hutsa izan ez dadin, bi baldintza batere behar ditu: batetik, gaiarekiko sentiberatusuna daukaten gizon-emakumeak antolatu ahal izatea; bestetik, gizarteak antolakunde horiek babestea egoki deritzen tresnekin. . Udala da baldintza biak gauztearen erantzule, herritarren nahiarekin bat eginik.

Elkartasunezko internazionalismoak herri gisa beste herri batzuk babestea du helburu, bidegabekeriaren benetako kausen aurkako borrokan, gurea ere baden borroka; eta beti ere kanpoko esku-hartzearen aurkako jarreratik. Hori ez da lan erraza nazioarteko egoera gatatzak, non laguntza humanitarioa xantaia politiko eta militar moduan erabiltzen den.

Udal honen aldetik, ezagutzen dugu nazioarteko elkartasunaren alorrean Askapenak 28 urte luzez eramandako jardura politikoa. Brigada internazionalisten bitartez, elkartasun kanpainen bitartez, bertoko nahiz nazioarteko topaguneetan bidegabekeriaren aurka egindako salaketan bitartez etab. Askapenak herrien arteko bidezko funtzionamendu demokratikorako ezinbesteko baloreak eman dizkio euskal gizarteari.

Hemen salatu nahi dugu Askapena fiskaltzaren ilegalizazio eskaerari aurre egin beharrean dagoela. Herriak asko elkararekin eta Elkar Truke SL.-rekin batera; baita bost militanterentzat seina urteko kartzela zigorra eskatzen dutela ere, elkartasun internazionalistaren baitan egindako lanarengatik.

Hori guztia eskubide zibil eta politikoen aurkako beste eraso dela deritzogu. Jokabide horren atzean dauden helburu politiko eta alderdikoiak saltzen ditugu. Askapeneren bitartez eta elkartasun internazionalistaren baitan euskal udalek burutako jardunari zilegitasuna kendu izana gaitzesten dugu. Espainariar fiskaltzaren erabakia Euskal Herriko gatatzaren konponbidean arduragabekeriak ipinitako oztopoa dela uste dugu.

Horrengatik guztiagatik Udal honek honako adierazten du:

- 1) Elkartasun internazionalista bultzatzeko lanean diharduten erakunde eta pertsona guztiekiko babesa.*
- 2) Askapena, Askapena, Herriak aske eta Elkar Truke-rekiko nahiz inputatutak bost*

2015.09.29

euskaldun internazionalistekiko elkartasuna;

- 3) *Askapena, Askapena eta elkar Trukek egiten duten lana ez oztotatzeko exijentzia,*
- 4) *Walter Wendelin, Gabi Basañez, Unai Vazquez, Artiz Ganboa eta David soto euskaldun internazionalisten aurkako epaiketa euren absolutzioak maiatzeko, dagozkien eskubideak itzultzeko eta zor zaien erreparazioa emateko erreklamazioa.”*

Jarraian, EAJ-PNV taldeak aurkeztu duen mozio alternatiboa irakurri da. Hitzez hitz honela dio:

“Epaiketa honek, 18/98 sumarioaren eta Euskaldunon egunkariaren sumarioaren garaia gogorazten du. Inoiz hasi eta izapidetu behar ez zuten epaiketak, inolako oinarri juridiko eta penalik ez zutelako eta bere sorkuntzan eta garapenean, joera eta inspirazio politiko oso argia izan zutelako. Inolako benetako oinarri edo frogarik gabe talde terrorista batetako, kide izatea edo laguntzea bezalako kontzeptuen hedapena edo gainezkatzea bezalako irizpide estrajuridikoetan kokatu ziren epaiketak. Auzipetuak ETAko militante izateaz edo lagundu izanaz akusatuak izaten ziren epaiketak, arrazoi bakarra erabiliz, burutzen zuten egiazko eta legezko kultur, kazetaritza eta politika ekintzak ETArekin aginduz eta sorburupean burutzea.

Guzti hori, PPren gobernua, PSOEkin lagunduta, Alderdien Legea artikulatzera eraman zuen filosofiak agintzen zuen testuinguru politiko batean eta ondorioz Alderdien ilegalizazio prozesuak etorri ziren. Orain Askapenaren (Askapena, Herriak Aske eta Elkar truke, S.L.) ilegalizazioan bere jarraipena ikusi nahi dute.

Urteak pasa dira eta historia errepikatzen da. Eta gainera, epaiketa egoera erabat ezberdinean burutuko da, non, zailtasunak zailtasun, bake eta normalizazio prozesua Euskadiko giza eta politika erakunde guztiek barneratuta daukaten.

Arrazoi hauek medio epaiketa honen hasiera, atzera pausoa da, euskal gizartea normalizazio politikoaren bidetik dabilenean, nahasteko besterik ez den elementua.

Epaiketak, oinarrizko eta gutxieneko oinarri juridikorik ez duela uste dugu, inoiz ez zuela hasi behar edota, kasuan, kausa artxibatu eta prozedura artxibatu behar zirela, horrela, agintearen berreskurapena eta justiziaren izenona berreskuratzeaz gain, bake prozesuaren eta Euskadiko politikaren normalizazioan lagunduko luke eta.

Guzti horregatik, EAJ-PNV udal taldeak eztabaidatua eta onartua izan dadin ondorengo mozioa aurkezten dio udalbatza honi:

Tolosako udalak inoiz hasi behar ez zukeen epaiketa honi bere erabateko gaitzespena adierazten dio eta auzipeturiko guztien absolutzio erabaki juridikoarekin berehala amaitu dadin premiatzen.”

Bozketara jarri ondoren, Udalbatzak, EAJ-PNV (9) alderdiko aldeko botoekin, EHBILDU alderdiaren abstentzioarekin eta PSE-EE (1) alderdiaren aurkakoarekin, gehiengoz, mozioa **onartu da**.

2015.09.29

12.AVITEk (Talidomidaren biktimen elkartea) aurkeztutako mozioa.

12.Moción presentada por AVITE (Asociación de Víctimas de Talidomida)

Idazkariak AVITEk aurkeztutako mozioa irakurri du. Honela dio:

“BREVE HISTORIA DE LA TALIDOMIDA EN ESPAÑA:

La Talidomida se patentó en España en Marzo de 1.954, se trataba de un maravilloso sedante sin efectos secundarios, y además paliaba las náuseas y vómitos en las embarazadas. Empezaron a nacer un número desproporcionado de niños con graves malformaciones en brazos y/o piernas, incluso careciendo de ambas, y en Noviembre de 1.961 los doctores Widukim Lenz (alemán) y Claus Knapp (español) descubren la relación entre la Talidomida y las malformaciones. Entre Noviembre de 1.961 y Mayo de 1.962 es retirada en el Mundo entero, salvo.....en España, donde se continúa vendiendo aun a sabiendas de sus consecuencias, al menos hasta 1.975. La farmacéutica alemana Grünenthal hizo en España su negocio.

La catástrofe de la Talidomida sirvió para cambiar toda la legislación en materia de control sanitario de medicamentos, alimentos, bebidas y artículos de consumo humano, por lo que podemos decir que gracias a la Talidomida la humanidad puede estar tranquila con las cosas que se lleva a su boca, sobre todo los medicamentos. Escaso ha sido el agradecimiento para con sus víctimas, en España, absolutamente nulo.

BREVE RESUMEN DE LA LUCHA DE AVITE EN ESTOS 11 AÑOS:

Once han sido los años de lucha en busca de una equiparación con las víctimas de Talidomida del resto de Europa, y en este largo camino solo hemos logrado un Real Decreto (1006/2010) que reconocía solo a 24 personas, y las concedía lo que el propio texto denomina “Ayuda Solidaria”, o dicho de otro modo más coloquial, una limosna para que nos estemos callados.

Hemos conseguido también que la Talidomida sea incluida en el Real Decreto 1851/2009 entre las causas que justifican una jubilación anticipada con 56 años a las personas que superen el 45% de discapacidad. Paradójicamente, no hay organismo oficial (y gratuito) que reconozca quien es afectado de Talidomida y quien no, por lo que orquestamos un Real Decreto al que las víctimas de Talidomida no tienen posibilidad de acogerse por carecer de reconocimiento “oficial”

Y como colofón demandamos por lo civil al laboratorio alemán Grünenthal ganando el juicio completamente en primera instancia, siendo anulado solo por prescripción por la Audiencia Provincial de Madrid, y en la actualidad estamos a esperas de la resolución del Tribunal Supremo que deliberara la sentencia el próximo 23 de Septiembre de este año (sin ayudas de nadie ni subvenciones de ninguna empresa ni pública ni privada, solo subsistiendo con las cuotas mensuales de sus socios).

BREVE SITUACION ACTUAL Y COMPARATIVO. CON RESPECTO A LAS VICTIMAS DE OTROS PAISES:

La comparativa es muy sencilla, se resume en dos simples puntos:

Todas las víctimas de los países europeos han percibido:

- Una indemnización
- Pensiones vitalicias para sus víctimas que les garanticen una supervivencia digna, y sobre todo independencia.
- Unidades médicas especializadas
- Unidades psicológicas especializadas
- Gratuidad en medicamentos, prótesis y orto prótesis

2015.09.29

En España.....NADA DE NADA

SITUACION ACTUAL DE LAS VICTIMAS ESPAÑOLAS EN NUESTRO PAIS:

Las victimas vivas de Talidomida que quedan en España, la gran mayoría, sobrevive de las ayudas familiares, la caridad, la iglesia, las instituciones de ayuda social, e incluso ejerciendo la mendicidad por los suelos de las calles de las grandes ciudades. Flaco favor para aquellos a quien la humanidad debe tanto.

Por todo ello, el Alcalde-Presidente de este Ayuntamiento, somete al Pleno, para su aprobación y acuerdo oportuno, los siguientes puntos:

Primero.- *Declarar el Apoyo UNANIME Y SOLIDARIO del Ayuntamiento de Tolosa, para con las Victimas de la Talidomida en España, y en particular a la Asociación AVITE, por su lucha incansable y sin cuartel, en pro y favor de las víctimas de este fármaco en España, por la deuda histórica que nuestro país tiene con los afectados y sus familiares, desde hace 60 años.*

Segundo.- *Instar y escribir a la farmacéutica alemana Grünenthal, imperio farmacéutico mundial y afincada en España, responsable de la masacre, solicitándole que sin más dilación, indemnice a los afectados españoles.*

Tercero.- *Que independientemente a la indemnización a la que puedan tener derecho cada uno de los afectados, por el daño que le produjo la farmacéutica en sus cuerpos antes de nacer, además de los daños nuevos, continuos y permanentes que siguen apareciendo en sus cuerpos cada día, después de 60 años, instar también y escribir desde este Ayuntamiento, al Presidente del Gobierno de España, para que como medida social, el gobierno de la nación, (a través del organismo que corresponda) filtre quien puede ser afectado o no, de Talidomida en España, y conceda pensiones vitalicias a los afectados, hasta que fallezcan, como están percibiendo los afectados del resto de países del mundo, menos en España.*

Cuarto.- *Enviar el acta y el acuerdo adoptado por este Ayuntamiento, respecto a esta MOCION DE URGENCIA, tanto a la Asociación AVITE, como al laboratorio alemán Grünenthal afincado en España, como multinacional, y también al Gobierno de España, representada por su Presidente del Gobierno.”*

Jarraian mozioa bozkatu egin da eta aho batez **ONARTU** egin da.

2015.09.29

13. Galderak eta eskaerak.**13. Ruegos y preguntas.**

... Iñaki Irazabalbeitia, EHBILDU alderdiko zinegotzia: “joan den ostiralean jaso genuen mezu bat Tolosako herritar batena eta hementxe irakurriko dut. Honela dio:

“Atzo Tolosako Udalak deituta batzar informatibo batetara joan ginen Bizkai eta Izaskun auzoko bizilagunak. Bidebieta auzoko aparkalekuaren proiektu aldaketa dela eta, bertara Udaletik Jokin Azkue, Tolosako PNVko zinegotzi eta Eusko Jaurlaritzako Euskararen normaltasun arduraduna; Paxi Amantegi zinegotzia, Udaltzainburua eta Udal arkitektoa agertu ziren. Bileran hasi eta galdera bat luzatu nien arduradunei euskaraz, erantzun zidaten eta publikoko batek esan zuen: *La reunión será en castellano, no?*” Udaleko Azkuek, baiezkoa. Power pointerra explikatzen zuten erdera txukunean. Ondoren, bizilagunen galderak eta protestak, erderaz denak. Bizilagun batek eskua altxa eta bere ekarpena euskaraz hasi zuenean, Jokin Azkuek: “en castellano por favor”. Bizilagun hau, automatikoki erderara pasa zen. Bilerak aurrera egin zuen eta beste bizilagun batek euskaraz hasi zenean, berriro Jokin Azkuek, en castellano por favor.

Bizilagun honen erantzuna: barkatu, ni oso burugorria naiz eta utz diezadazu nire ekarpena euskaraz egiten eta gero itzuliko dut.”

Kontrastatu izan dut bertan zegoen beste pertsona batekin eta galdera nahi dut egin .

Horrela gertatu al ziren ...

... Jokin Azkue Arrastoa (EAJ-PNV): “*pentsatuko duzue iritzi partziala dela, hemen nagoelako eserita, baina han gertatutakoa ez da hori, ez zen egon inor esan zuenik. “se hara la reunión en castellano, no? Horrelakorik ez zen egon.*

Bigarren, ekarpenak egin zituztenak: jende askok egin zituen euskaraz ekarpenak, lehen balorazioak euskera hutsez egin ziren, eta gure erantzuna euskaraz izan zen eta gero zenbait ekarpen luze izan ziren gazteleraz eta nire erantzuna izan zen gazteleraz.

Momentu jakin batean, proposamenak mahai gaineratzen hasi ziren bukaeran. Eztabaida izan zen Bizkai kalean ireki behar den edo ez, horko galdera, kexa gehiehenak aportazio gehienak, gazteleraz. Beste zatian, batzuk proposamen batzuk egin zituzten eta zati horretan bi egon ziren gaztelera egin zirenak eta gazteleraz partekatu zen hori, momentu horretan pertsona bat euskaraz hasi zen egiten eta bere ezkerretara 3 edo 4 pertsonak guri esaten ziguten ez zutela ulertzen. Ez zidaten esan hemen esaten den hori, hemen esaten zuten: gazteleraz ere egingo da?, eta berak esan zuen:” bai euskeraz bukatzen denean gazteleraz egingo dut”. Beraz, ez bazuen itzultzen zati hori, nik egingo nuen, gauza horiek normaltasunez hartu behar dira eta horrelaxe bukatu zen kontua.. Horrelaxe gertatu zen eta hor dagoen hori pentsatzen badu horrek errealitatea dela, ni beste bileran batean egon nintzen eta galdetu han zeuden besteei. PPTa elebrietan jarrita zegoen eta azalpenak gazteleraz eta euskaraz egin ziren. Imanolek egin zuen. Eta debate osoa izan zen, galderak edo ekarpenak euskaraz egiten baziren euskaraz erantzun ziren. Nik daukat hori esateko, ez besterik.”

... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez (EHBILDU): “*bi iritzi, bi ikuspegi: han egon zen pertsona horrek esan zidan euskaraz egin zuela eta erdaraz egiteko esan ziela eta hortik aurrera horrela egin zuela deskolokatuta gelditu zelako eta bere interbentzioak hortik aurrera erdaraz egin zituela. Beste galdera bat: Udalak eraman zuen estrategi bat hizkuntza*

2015.09.29

aniztasuna kudeaketa egiteko bilera edo....?”

- ... Jokin Azkue Arrastoa (EAJ-PNV): *“Horrelako bilerak asko tokatu zaizkit egitea eta niri galdetzen badidate euskaraz, euskaraz egiten dut eta erdaraz egiten badidate erdaraz egiten dut. Ez dago besterik, baina gauzak normaltasunez hartu behar dira eta alderdi jakin batek euskara instrumentalizatu nahi badu, gu horren kontra egongo gara, galtzailea euskara izango delako. Nik besterik ez dut esango.”*
- ... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, (EHBILDU): *“Udaleko twitter-en bi mezu jarri ziren “Udal gobernua tolosarren hizkuntza eskubideak errespetatzen ditu. Zuk aipatutako bileran, euskaraz ez dakien jendea zegoen, eta horiek bilerako edukiak uler zitzaten, gaztelera egitea erabaki da”. Erantzunkizuna Udalarena da, hor disfuntzio bat dago eta hurrengo batean horrelako disfuntzioa ez gertatzeko eskatzen dut, eskatzen dugu horrelako gauzak kontutan izateko. Udalaren twitterrean publikatzean, ez da fede txarrean egin baina horrelako disfuntzioak ez gertatzea eskatzen dugu. Estrategi batzuk aplikatu behar dira eta bilera prestatuta joan behar, Jokinnek esaten duenean euskaraz egindako galderak euskaraz erantzutea, normal, baina baliabideak jarri behar dira euskara ez dakitenentzako. Eskatzen dugu horrelako gauzak kontutan hartzea. Batzuk sentitu zituzten bere hizkuntza eskubideak urratuak. Zentzu horretan, horrelako bilerak planteatzen direnean estimatuko genuke aurrez aurretik ondo prestatuta eramatea hizkuntza guztien eskubideak, erdaldun eta euskaldunen eskubideak errespetatzeko baliabideak bermatzeko.”*
- ... Jokin Azkue Arrastoa(EAJ-PNV) : *“Han norberak nola perzibitzen duen da kontua, baina ez zen objetiboki inoren hizkuntza eskubidea urratu, inori ez zitzaion ukatu ez gaztelera ez erdaraz hitz egin zezan, eta hori nik demostratuko dut edozeinen aurrean.”*
- ... Peio Etxabe Zabala(EHBILDU), Kirol taldearen dirulaguntzaren inguruan honako hau adierazi du: *“Kirol taldeei eskatu zitzairen ekainaren 30erako dokumentazio aurkezteko, irailaren bukaeran gaude eta Kirol batzorde bat bera ere ez da egin, galdetu nahi dut arrazoiaren bat badagoen atzerapen horretarako.”*
- ... Jose Ignacio Asensio Bazterra, (PSE-EE) : *ez dago inongo arazorik horren atzean. Hala eta guztiz ere, batzarra urriaren 7an egingo da eta azalpenak egingo dira.*
- ... Ibai Iriarte San Vicente (EHBILDU) : *“Kezkatzen gaitu uda pasa da, irailaren amaieran gaude eta badaude zenbait gauza, gaur kreditu aldaketaren aipatu dugun bezala, gardentasun eza horretan, jakin dugu inongo batzordetik pasa gabe, partida hori zegoela dokumentazioa ikustean jakin dugu, baina ez da bakarra.*
- Abuztuan merkataritza sailaren pribatizazioa urgentziz planteatu zen pleguen bitartez, denbora eskatu genuen, korrika eta presaka aztertzeo denborarik gabe.
- Kaleko edukinontzi berde batzuk agertu dira, kale garbiketakoak omen, baina ez dakigu non erabaki den.
- Bidebietako proiektua bizilagunei aurkeztu zaie batzordetik pasa aurretik. Ez dadila ohitura bilakatu; hau da, egunkarietako elkarrizketaren bidez jakin genituen zuek hondakinen aurrean aurreikusten duzuten...”
- ... Alkateak: *“Kuestioa ez da hori, ez dago gardentasun ezarik. Merkataritza batzordetik pasa genuen, ezohizko batzorde batean, gai honek duen garrantziarengatik, nahi genuelako Merkataritza sail berria irailan lanean hastea eta abuztuan eginda ere, ez dugu lortu irailan martxan jartzea.*

2015.09.29

Kale garbiketari dagokionez, zuek hartutako erabakirik aparte ez dugu erabakirik hartu eta Bidebietako gaia Hirigintzako batzordean tratatuko dugu.”

... Ibai Iriarte San Vicente (EHBILDU): *“Edukiontzi horiek agertu dira irekiak eta agindu norbaitek agindua emango ote zuen”.*

... Alkatea: *Ez da inolako erabakirik hartu eta horrek esan nahi du guk ez dugula erabaki berririk hartu. Hor azaldu badira egongo da arrazoiren bat eta argituko dugu.”*

|

Gai zerrendatik kanpo, urgente bezala, ondorengo gai hau tratatu da:

Elektrizitate zerbitzu komertzialen prestazioa.

Prestación de servicios comerciales de electricidad.

Gai hau tratatzeko prremia aztertu da eta aho batez ONARTU DA gai zerrendan sartzea.

- **Elektrizite zerbitzu komertzialak prestatzea.**

- **Prestación de servicios comerciales de electricidad.**

2009ko uztailaren 1az geroztik, elektrizitatea banatzen duten enpresek ezin dute energia saldu nahiz erosi. Tolosarrei zerbitzua ematen jarraitu ahal izateko, eta publikoa artatzeko puntu bat izatea interesgarria denez, Tolargi, SL enpresa CIDE Servicios Comerciales enpresari atxiki zitzaion 2009an. CIDE enpresak CHC merkaturatzailea eratu zuen Hidrocantábrico enpresarekin batera.

Desde el 1 de julio de 2009 las empresas distribuidoras de electricidad no podían ejercer la actividad de compraventa de energía. Para poder continuar dando el servicio a los tolosarras y por considerar de interés tener un punto de atención al público la empresa Tolargi, S.L, se adhirió en el 2009 a la empresa CIDE Servicios Comerciales. La empresa CIDE constituyó junto con la empresa Hidrocantábrico la comercializadora CHC.

Hori dela-eta, Tolargi, SL Agente Komertzial gisa(Delegaritz) eratu zen, bezeroekin zuen harremanari eutsi ahal izateko.

Por ello, la empresa Tolargi S.L., se constituyó en Agente Comercial (Delegación) para seguir manteniendo su relación con los clientes.

Nola nahi ere, egin diren txostenen arabera, beharrezkoa da Tolargi, S.L.ren jarduera komertziala eskualdatzea.

Sin embargo, de conformidad a los informes emitidos, es necesario traspasar la actividad comercial de Tolargi, S. L. a otra entidad.

Horretarako hainbat aukera aztertu ondoren ikusi da bideragarriena Udalak

Para ello, se han contemplado diversas alternativas concluyendo que la más viable

2015.09.29

berak zuzenean bere gain hartzea dela.

Hori dela eta, aho batez,

ERABAKI DUTE

Lehenik.- Tolosako Udalak energia elektrikoa merkaturatzeko zerbitzuak emateko zerbitzua berriro hartzea.

Bigarrena.- Aipatu zerbitzuaz arduratzen den funtzionarioa Udalari berratzikitzea, eta, horretarako, lanpostu-zerrenda aldatu eta aurrekontu-plantilla zuzkitzea.

Hirugarrena.- Erabaki honen hasierako data 2016ko urtarrilaren 1a ezartzea.

Laugarrena: Tolargi, S.L.k Udalari laga dakizkioken partaidetza sozialak lagatzea onartzea.

Bosgarrena.- "CIDE HCENERGIA"rekin dagokion kontratua sinatzea, eta alkatea gaitzea, akordio hau gauzatzeko behar adina dokumentu sina ditzan.

Besterik gabe, gaueko 21:15ean bilera bukatutzat eman da, eta guztia, nik, Idazkaria naizen aldetik, ziurtatzen dut.

ALKATEA

es la de que el servicio de actividad comercial se asuma por el Ayuntamiento.

En base a ello, por unanimidad

SE ACUERDA

Primero.- Reasumir el servicio para la prestación de servicios de comercialización de energía eléctrica por parte del Ayuntamiento de Tolosa.

Segundo.- Readcribir al Ayuntamiento al funcionario encargado de dicho servicio, para lo cual se dotará presupuestariamente en la plantilla presupuestaria previa modificación de la relación de puestos.

Tercero.- Establecer que el plazo de inicio de este acuerdo sea el 1 de enero de 2016.

Cuarto.- Aceptar la cesión de las participaciones sociales que pudiera ceder Tolargi S. L. al Ayuntamiento, en caso de que sea necesario.

Quinto.- Formalizar el correspondiente contrato con CIDE HCENERGIA facultando a la Alcaldesa para la firma de cuantos documentos sean necesarios para llevar adelante el presente acuerdo.

Sin más asuntos que tratar, siendo las 21:15 horas de la noche, se da por finalizada la sesión, de todo lo cual, yo, el Secretario, certifico.

IDAZKARIA